




KULTURA

sortzen dugu



BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Hau da gure kultura.

www.bbk.es



MAHATSERRIKO ALD ZKARIA
Doitain

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2002ko OTSAILA / 41. zkia. DOITAIN



*Santutxuko
Inauteriak
Santa Eskea
Begoñan*

*Laida Martínez
idazle mahatsorri*


**Jose Iragorri,
Athleticen partiduen ahotsa**



Basobidea XX. mendearen hasieran

Argazki zahar horren antza eukiko leuke gaur egun bertotik beste bat egingo bagendu. Karmelo ikastolako lokalen ondoan egin leike. Hortxe dago Basobidea kalea, inguruko ortuak, gaur egun sasiz gainezka, Hermanitas de los Pobresen etxea -hori bai nahikoa zaharbarrituta- eta, azpian, Encarnación edo Gizakunde elizaren atzealdea. Kontua zan orduan kalea hortxe amaitzen zala eta gaur...

Iturria: 'Bilbo eta bere itsasadarreko herriak postatxartelak' liburua, Luis Amann Egidazu eta Roman Alonso de Miguel-ena.



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Sorgintxulo 3. Urtea	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Santa Eskea Begoñan	8	▶ Kirolak: Amaia Piedra	26
▶ Begoña eta Euskerea	10	▶ Mendi Ibilbidea	27
▶ Santutxuko Inauteriak	12	▶ Laida Martínez	28
▶ Elkarriketa: Jose Iragorri	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19	▶ Hileko Argazkia	31

Bakalao, bakalao, bakalaoooooooooo!
 - Zer da ba? Arraine saldu? Erregalau? Emon? Eskatu? Gero ta jente gitxiagok daki bakallaoa preparaten ta manifestaziñoa egin daurie?
 - Ez ba! Athletic-ek gola sartu dau ta holan esaten daurie.
 - Ai ama! Orain golari bakallaoa esan bier jako? Ta bakallaoari zelan esan bier jako ba? Bixigue? Edo arbitroari txipiroie, baltza dan lez...
 - Hori lehen ixeten zan, orain koloreko kamisetie daroie. Ez duzu ikusi ala?
 - Ba arbitroan kamisetan ez naz fijau, baie Athletic-ekoak pentsaten dot Robinjuz-en lehengusuek direzela.
 - Robinjuz? Zer ba?

- Joder! Eitten daurie partidu baten Realmadri-deri golak sartu ta gero dator klasifikaziñoan akabuen dabilen baten bat ta harek irabazi. Ha ez zeuen eitten harek, Robinjuz-edo, dekonari kendu ta ez dekonari emon?
 - Joder, baie futbolien betik ezin de irebazi.
 - Joño! Irebazi ez, baie bakallaoa erregalau, ondo karu dago ba! Aitu! Santa Ageda kantetan dabiltezeneri emongo neutzien lehengo egunien bakallao apur bet, baie dendara joan ta prezidxoa ikusi ta ostidxen tren! Trago bat ardao ta ondo mutilok, segidu aurrera!
 - Baie hamen zer gabiltze berbetan Athletic, bakallaoa, Santa Ageda ala kuentoak kontaten?
 - Hori dana azkanengo Berton-en, laguntxu!

AZKARAİKO BIDEAREN ETA AZKUE KALEAREN ESANGUREN INGURUAN



Begoñako antxi-nako udal mugartea- ren mugan dago Azkaraiko bidea, Doneztebe Etxebarri-ko udalerraren kontra. Ibaizabal erreka- ren bihurgunea zehar doa. Bide hau hasten da, Zumalakarregi

etorbidean, eta Mikoletan gora egiten dau. Hortik segitzen dau, hariak eta Arbolantxa bideagaz bat egin arte. Azkarai izenaren jatorria izen horretan dauan zuhaitzari jagoko. Itxuraz, antxi- nako denporetan baziran horrelako arbolak aurkintzotan.

Resurrección María de Azkueren kalea Begoñako Santutxu auzoan dago. Kale honek Santutxu eta Fika kaleak lotzen ditu. Kale honek inoizko euskalari onenaren izena dau. Resurrección María de Azkue Aberasturi Lekeition jaio zan 1864. urtean, eta Bilbon hil 1951n. Bilbon bertokotu zan 24 urte zituala; izan be, urte horretan irabazi eban euskerearen kate- drea, Bizkaiko Foru Aldundiak babestu ebana. Katedra hori Bilbo erdiko institutuan ezarri zan, eta katedra horretan iraun eban 1936. urtea arte. Abade izan zan; beti be, ez eban eliz kargu finkorik izan, ezik irakaskuntzan, ikerketan eta literaturan jardun eban buru-belarri. Euskaltzaindiaren burua izan zan haren sorreratik, 1918. urtetik, hariak eta hil zan arte. 1927. urtean Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiako kide izen- tau eben. Obra asko eta garrantzitsuak izan ziran, berbarako, Euskalerraren Jakintza, Diccionario vasco-español-francés, Cancionero Popular Vasco. Haren heriotzaren aurretik jazoera bitxia gertatu zan: Bilbon, erreka ondoan paseatzen ebilela, jausi egin zan erreka, bera salbatzeko salto egin eban handik ebilen gizonezko batek, eta abade lekeitiarrak bere jenio bizi- gaz esan eutsen berak baekiala uger egiten, itsasoko semea zan ezker. Erreka jauste horretatik alborengoak harrapatu eban, eta handik hil zan egun batzuk geroago euskalari lekeitiar bikaina.

GOTZON LOBERA REVILLA

BEGOÑAKO SARBIDE BERRIA



Lehen Bilbo hiria zenera sartzeko Begoñako lurretatik pasatu behar zen. Gaztelatik zetozenak Boluetako zubitik Ibaizabal igaro eta Korrejidorea- ren pasealekutik eta Mirafloresetik Bilbora sartzen ziren.

N-634 errepidea, Lasartetik (Gipuzkoa) datorre- na, Boluetara heldu eta Ibaizabalen bidari segika Atxuritik sartzen da Bilboko hirian. Gaur egun ere begi bistan daude kilometro mugari zaharrak, trian- gelu formakoak.

1925ean, Deustua eta Begoñako herriak Bilbok irentsi eta gero, sarbide berri bat pentsatu zuten. Artean autoz gainezka zegoen Erribera, Areatza eta plaza biribila kaleen alternatiba izan behar zuen. Horretarako, Etxebarritik, Begoñako zabala zeharka- tu eta Kristo kaletik Udaletxeraino iritsi behar zuen.

Obrak askoz geroago hasi ziren, 1958 urte aldean. Begoñako basilikaren azpian tunel bat induskatu zuten. Gaur egun bide berri horri Zumala- karregi esaten diogu eta etorbidea da. Kanpotik datorren bisitari arrotza harrিতuta utziko du kale honek, ustekabean hiriaren erdi-erdian lagako du eta.

IÑAKI URIARTE

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea
ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune Berro, Iratxe Ruiz, Erdoitza Martínez, Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi,
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200

SANTA ESKEA BERRITUZ BEGOÑAKO BASERRIETAN KOPLA KANTARI LEHENGO LEGE ZAHARREAN



"Gaur ez da Santa Ageda bezpera". Hori entzun behar izan genuen behin baino gehiagotan baserriz base- rriko ibilbidean zehar. Bagene- kien. Astelehe- nean zen Santa Ageda bezpera, baina guk larunbatera aurreratu genuen Santa Eskea.



Testua: Joxin Iturrioz / Argazkiak:



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoweb.com/Spedro
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegalla.com
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIEL ARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

O.P.E.: 019/97

CYBER TIME
Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak

Sarean jotasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketak...
Aita Pernet, 1
48004 Santutxu
Bilbo
tfnoa/fax: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net



Lan eguna zen astelehena bai guretzat bai baserritarrentzat, bisitatu nahi genituenentzat, alegia. Eta beste zenbait herritako erreferentziak ere bagenituen. Horieta bat, guretzat baliagarriena, Berriatukoa. Urteroko ohiturarekin jarraitzen dute, baserriz baserri joan eta baserriko guztiak koplatu. Eguerdian hasi, eta iluntzeraino, kantuan. Larunbatean. Larunbatera pasatzen dute Santa Eskea. Bezpera astelehen, astearte zein ostiralean izan, hurbilen dagoen larunbatean ateratzen dira koloredun zapi eta lastozko kapelarekin. Ohiturak aldatu ohiturak mantentzen daitezten.



Gauza berbera egin beharko genuen guk, galdutako ohitura berreskuratzeko. Iazkoa genuen gogoan denok. Ederto atera zen. Aurten larunbatean egitea erabaki genuen baserriz baserriko itzulua. Ohiturak apurtu ohiturak mantentzeko.

Esan eta egin. Larunbatean goizeko hamarretan jarri genuen hitzordua. **Garaizar** tabernan gosaldu genuen. Hori zen gure lehenengo "baserria". Baina ez genuen kantatu eta itxaron zerbait atera arte. Lehenbizi kafeak eskatu, patxadaz hartu eskatutakoa, eta halako batean kantatzen hasi. Gero presaka, pentsatutako baserri guztiak koplatu nahi bagenituen. Azkenak alperrik galdetuko zuen, erdi lotsati antzera, baina lotsa handirik gabe: "Zenbat da?" apal bat. Apala ahotsaren megahertzioen arabera diot, eta ez pertsonaren jarrerari dagokionez, noski. Agian garaizartarrei grazia egin zien galdetzeak ere.

Hurrengo "baserri"-ra, **Mailuki** kafetegira, eta dagoeneko presaka. Tabernakoak koplatu, eta ardoa, txakolina, txorizoa,

urdaizki... ezin amaitu. "Goazen, oraindik asko falta zaigu eta", ezin egonean. Erdia bertan ez uztearren, pare bat zati ahoan sartu, eta ulertu ezinezko "eskerrik asko" bat esanez kanpora.

Begoñako Basilikara, autobusa hartzera. Luze joan zitzaigun itxaronaldia. Urduritasuna nabaria zen. Hasi baino ez, eta presaka genbiltzan dagoeneko. Autobusean ez geunden isilik egoteko. Txoferra ere koplatu genuen. Baina han ez zegoen ez txakolinik ez txorizorik, harridura aurpegiak baino. Eta horiek hobe jan barik bake-bakean uztea.

Santa Marina aurreko geldialdian jaitsi ginen. Eta artez **Etxarte** baserrira abiatu. Kortako lanetan harrapatu genuen **Jose Etxarteren** familia. Lanak garaiz egin behar, igandean San Blaseta Abadiñora joateko. Bedeinkatutako harriak eta kortako lanak kantatu, eta han hasi ginen diru-zorroa betetzen. Halere, guk txakolina eta txorizoa nahiago. Etxarte baserria utzi, eta beherantz.

Atxeta baserrira iritsi ginen. **Martina Aurre** etxeokandrea atera zitzaigun pozik eta alai. Falta direnak gogoan, preso dagoen semearen aipamenak ez ziren falta izan, ea hurrengo urtean gure koplak entzuteko Martinaren ondoan dagoen opa-

tuz. Noiz entzun ahal izango dituen ezin jakin, ordea. Bihotzak hunkitzeko gehiagoren beharrik ez, eta esan nahiko genukeen guztia esan gabe joan ginen, Martina eta Manu burutik kendu ezinik.

Legina baserri multzoan, aldapan behera, **Mikaela Telletxearen** etxea genuen jomuga. Lanean harrapatu genituen guztiak, amama Mikaela barne. Lana utzi, eta pozik hurbildu zitzaizkigun gure koplak entzutea. Bertsoskolan aritutako Mikaelaren iloba gazteak entzun



behar izan zituen bereak, baina ez zuen erantzun. Mikaelaren sasoi aipatu, eta jateko sasoi zela erantzun. Hango txorizo, urdaizki, oliba eta abar! Ardoa ere aukeran, zuria, gorria, eta sagardoa. Presa guztiak uxatu genituen. Kontu kontari luze aritu ginen, falta zitzaigunari erreparatu gabe. Azkenean, lepotik hartuta eraman behar jendea.

Hurrengo baserria, **Etxexiker**. Baina sorora joanda zuden nagusiak, eta ez zuten gure koplari entzun. Agian ez zuten joango ginenik espero. Baina hurrengo urtean itzuliko garela esanez joan ginen.

Etxezuri baserrian **Martin Mentxakatorre** bazkari erdian harrapatu genuen. Kafea denontzat ateratzeko eskatu genion, guk ordurako bazkari beharrik ez baikenuen. Gure taldeko neska gazteren bat ere eskaini genion, baina Martinek **Abadiñorako** utzi zuen langintza hori. Barre ederrak eginez agurtu genuen Martin.

Goikoetxe baserrian, berriz, mutilak eman genizkion aukeran **Karmelo Elorriagaren** alabari. Pentsatuko zuelako irribarrea egin zigun. Pozik ziren Karmelo, emaztea eta alaba, gure koplak entzun eta gero. Iaz koplari bat ere atera zitzaigun etxe barrutik, baina aurten falta zen. Karmelori esker berreskuratu ditugu Begoñako Santa Eskeko letra eta doinua, eta egingakoaren oniritzia jaso ostean, pozik agurtu genituen, hurrengo urterako lehia behar genuela amenazo eginez.

Etxepinto baserrian huts egin zigun **Josu Agirrek**. Eskerrak **Nekane** emazte bakiotarra adi zegoen txakolina ateratzeko. Hori bai, Bakiokoa. Horren kontura joan ziren koplak eta algarak. Nekanerri senarra utzita gurekin etortzeko gonbitea ere luzatu genion, baina nahiago izan zuen senarraren zain gelditzea.

Alejandro Urrutikoetxearen etxera hurbildu ginen segidan, eta han ere geure koplak utzi genituen. Ez asko, baina testigantza gera bedi. Aldapa behera egin, eta berriro aldapan gora, presaka. Otxarkoan geunden.



Pa... Ya konpartsakoek lanean harrapatu genituen. Batzuek juergan ikusten ez zituzten lehenengo aldia izango zuten. Hango irudiak koplatu (oraindik... istak izaten jarraitzen dugu), **Peteteren** gutxi barruko aitatasuna zoriondu, eta koplak bukatu ondoren edariak eta platerak atera zituzten. Preparatuta zeuden! Agian lanera joango ginelakoan indarrak

egiteko prestatu zituzten guztia. Guk guztia estimatu genuen, eta platerak eta botilak hustu, baina berehala joan ginen bazkaltzera, agur beroak eginez.

Iritsi ginen behingoan **Jose txu** tabernara. Atonduta zegoen mahaia, oso berandu zen, baina geure koplak kanta barik ezin etsi. Barra aurrean kantatu, eta barrura. Giroa, ezin hobea. Bazkaldu genuen, ez gose ginelako, erritmoari eutsiz baino. Nagikeriarik ez dugu jateko. Gozo zegoen guztia.

Kantuak eta bertsoak ez ziren falta izan, noski. Gazteak izan ziren zirikatzaileenak. Besteok, ahal izan genuen moduan erantzun. Gogor datoz plazara gazte horiek.

Horrela izaten omen zen garai bateko Santa Eskean ere. Probatu, eta ondo zebiltzanak plazara. Gero plazan demonstratu behar izaten omen zuten beren bertso trebezia. Horrela bihurtzen ziren bertsolari. Santa Eskea izaten omen zen garai-ko bertso-eskola. Han trebatu, gero plazara jausi egiteko.

Gure gazteak bertso-eskolan aritutakoak dira. Hor ikasi dute bertsotan, eta dituzten saio urrietan eta eskolarteko txapelketetan eman dezaketena azaldu. Ez zaie gaizki etorriko Santa Eskea trebakuntza horretan. Kopla laburrarekin hasi, eta bertso-saio kopuru luzearekin amaitu.

Athletic eta Errealaren arteko futbol derbiak baino mintzagai luzeago ematen omen zuten koplariak auzoan kantatutakoak. "Honek halako bota omen dio beste baserriko Pepitori" batek, eta "Beste bertsolari hori oso zirikatzaile aritu omen da" besteak. "Guri bota zizkigutenak ere politikak izan ziren" gurean, eta "Ederrak entzun behar izan zituzten auzoan" bestean.

Orain konturatu gara egindako akatsaz. Egun ederra eman dugu, zoragarria, baina datorren urtean ez dugu grabagailua ahaztu behar.

Pa...Ya JO TA KE OTXARKOAGA EUSKALDUNDU ARTE

OTXARKOAGA

Pa...Yak baditu alternatibak

Antzinetik datorren giza alkartea da kofradia. Egon badagoz kofradia klase batzuk, arrantzaleena, erlijiosoak eta auzo-kofradiak.

Begoña eta Euskerea

Joseba Etxebarria 'Txabola'

Begoñako kofradia, auzo kofradia ete?



Ertaroan eratu ziren lenengoak. Kontua da orduko denboran euskaldunak kokatu edo instalatu egiten ziralda lurretan, asentau eta etxaldeak egiten zeurizela, non eta erreketako bailaretan. Baina ur bazterretan edo ton-torretan barik aldapetan izaten ziren, hau da maldetan, bertan ur egoan, baina ez uriolarik ibai bazterrean moduan, ezta goiko puntetan moduan ur barik. Baserri batzuk alkartzan ziren ermita edo baseliza baten inguruan, ez asko, ez ziren herriak ezta gitxiago hiriak.

Ermitak eukiten ebazan baserriak eta ondasunak; basoak, soloak ..., auzoko ondarea eta aberastasuna. Halan sortuko dira auzo-kofradiak, komunitateko onda-

sunak gobernatzeko.

Lenengo eta behin kulturearen mantenimendua egin bear zan; ermitako edifizioa, hormak, atekak... konpondu bear zirenean kofradiak egiten eban. Horretarako hasieran kofrade euren eta geroago arotza edo igeltseroren batek egingo eban, horretarako erabiliko zan mezetako eta beste eleiza zerbitzuen dirua, baite baso, ortu eta abarren bitartez lortutakoa be.

Aberastasun hauek banandu be egiten ziren kofrade-azokideen artean, dala egurre, entresaka bat egin bear zala eta, solo komunaletako bedarra ...eta abar.

Guzti honek antolaketa maila bat eskatzen eban eta

hori, hori da kofradia, giza talde bat antolatuta, ondasun eta zeregin batzuen inguruan azken finean. Kofrade izateko bertakoa izan bear, bertan jaiotakoa, horrek esan gure eban ondasunetako partizinoetan esku-bidea, prozesinoetan, enterua eta lurra bertan...eta erabagitzeko nortzuk izango ziren kofradiaren barruan egoazan kargo nagusiak; mayordomoa eta basazaina.

Kargo hauek garrantzi handikoak ziran eta edozeinek ez eukan aukerea, fogeradun baserri jabeak izan bear postu horretakoak, fogera oso, erdi irurden edota laurdeneoak. Fogera esan gure dau zergak, dirua, pagatzen ebalda, Udalak eskatuz gero, segun eta zelako fogera: osoa, erdia...obrak egiteko, gudaosteak jantzi, janari emon....Bertan abisatu egiten zan, sue (fogera) isiotu egiten zala, ondasunetako diezmoak kobratzeko eskubidea eukiten zeuriela eta beste batzuk.

Kargoetako bat mayordomoa zan, honek kofradiaren diru eta ermita edo edifizio barruko kontuak eroaten ebazan; kobrau, kontuak egin, konponketak egiteko bearginak kontratatu, mandak (kofrade izandakoen memoria meza) antolatu, abadeari dagokion guztia, hiletak ...eta erosi, erosi bear zana: meza emoteko olioak, kandelak, erropak... eta ardua be bai. Basazainaren esku geldituten zan bestea, kanpokoak, batez ba edifiziotik kanpoko ondasunen banaketa eta antolaketa; basoetan entresaka ala mozketa noiz egin, zelan, nork hartu egurrea, soloetako bedarra nori, ganadoak,...Guztia egitura nahiko partehartzaila batean; kargoak urtero aldatzen ziren, txandaka eta orden bat jarraituaz, hori bai, fogeradunak bakarrik, urtero kontuak ematen kofradia osoari, ...gizarte aurre edo sasi demokratiko baterako kategoria.

Denboraz inguruko ermitak, edo kofradiak, batzen hasiko dira, eta anteiglesia edo eleizateak sortuko dabe, ermita barik eleiza baten inguruan, geroago parrokia izango dana.

Kofradiaren egitura mantendu egiten da, geroago sartuko dira beste kargo batzuk diru eta bitxiak, irudiak eta abarren balioa handitzen joango da eta noble edota Ahaide Nagusiak ere sartuko direlako, egitura jerarkizatuago bat ezartzen, Halan bi klasetako eleizak egongo dira XIII. mendean, Eleizarenak direnak, Aita Santuaren eskuetan, eta patroidunak, patrioi edo noble baten eskuetan dagozanak, honek esan gure dau berak ondasunen parte bat daukola, aulki bat eleizan, lenengo filaren aurretik eta apaizaren inguruan, kargoak aukeratzeko eskubide berezia (Begoñan serora berak aukeratzeko eban),...



Guzti hau bat etor leike Begoñako kofradiarekin; gure Matzerri non dagoen kokatuta, Artxandarako aldaipan, bertan egoazan ermitak, San Justo, Santo Domingo, San Roke,...

Topatu dogun erreferentzirik eta zarrena 1162 urtekoa da. Bertan Lope Diaz de Haro Bizkaiko Jauna eman egiten dauz ondare batzuk, bera eta familiaren salbaziorako, eta euren artean "...unum collazum in Begonia...", idatzia firmetan daben jauntxoeren artean bada bat "García Nunnuzo de Begonia", honek gure dau esan, adituen eritziz, eleiza existitzen zala orduko denboran.

Geroago Diego Lopez de Haro ezagunak, aurrekoaren biloba, Bilboko "carta-puebla" delakoan agertzen dau "monasterio de Santa Maria de Begoña", monasterio berbak, sasoi horretan ez dau gure esan monjeetako zanak, berea baño, 'mon' horrek neurea da (mío), hau dala eta ikusten da Begoñako eleiza dala patroiduna, patroia Bizkaiko Jauna zala.

XV. menderarte, parrokia izanda, zerbitzu erlijiosoak (abadeak...) Santiagoko Cabildo-ren ardura zan, bere esku egoan baina parrokoa, derrigorrez, Begoñakoa izan bear zan, bertan jaiotako bizi, eta kofradiak onartute be. Serora berriz patrioiak aukeratzeko eban, serora honek eleiza ornamentuak, kriseiluetako olioak eta abar zaindu eta limosna eske joatea eukan kargoan. Mayordomo bi topatzen doguz, bata laikoa, laikoek elejidute, eta bestea klerigoa, klerigoek aukeratu, baine euren zeregina mayordomoarena da; diru kontuak, kobrau, kontabilitatea... eta urtero kontua eman bear kofradiari.

Begoñan badagoz beste ezaugarri batzuk auzo kofradia ete zan ala ez asunto horren inguruan; 1960 hamarkadaren inguruan bi kofradia existitzen ziren, bata erlijioso hutsa, Aste Santurako prozesioei begira, kaputxa eta jantziarekin urtetan zana eta bestea, 1900 urtearen hasieran "porreta" esistitzen zan, fogeradunen arrastoa? Prozesioak eta mayordomoen txandak, orden bat jarraituz, beste bat ete zan...?

URIBARRIKO AGATE DEUNA ABESBATZA



Aurten Agate Deuna bezperan koplak eta ohiko kantak abesten Bilboko Areatzan Uribarriko gizon kopuru ez makala ikusi ahal izan dugu. San Blas eguneko saltsan murgilduta zahar eta.... "gazte", azken hauek ez hain gazteak dagoeneko. Nortzuk dira eta noiztik dabilta gau eta egunak alaitzen?

Testua: Itxaso Pérez

Argazkiak: Agate Deuna Abesbatza

1975ean sortu zen. Beraz, milurtearekin batera 25 urte bete dituzte. Hala ere, ez da egia osoa urte horretan sortu zela esatea, ez da zehatzegia. 1940 urte inguruan, gerra ostean bildu ziren lagunek 'Artzandazar' abesbatza eratu zuten. Baina irizpide ezberdinak zirela medio, abesbatza horrek banaketa ezagutu zuen eta hartatik beste bi abesbatza atera ziren: Matikoko Artxandape abesbatza eta Uribarriko Agate Deuna.

Esan bezala, 1975an sortu, eta urte batzuk geroago, lehenengo Aste Nagusiarekin batera, lehendabizikoetako "banda de cartón" delako horietako bat atera zen (dakienez, banda horietan turuta jotzen zen eta "musika tresna" hori menperatzeko abesten jakitea behar-beharrezkoa zen).

Hasierako garai haietako kanta bat abesten dute oraindik Agate Deunakoe, non jasotzen diren Artxandazar elkartearen nondik norakoak, baita garai hartako bestelako ohiturak ere. Estrofa solte batzuk jaso ditugu:

*"quien quiera subir a Artxanda
a patinar,
que suba
en funicular"*

eta beste batean argi eta garbi islatzen da Mahatserriko futbol talde bien arteko lehia (sanoa beti) aspaldikoa den:


*"y aunque el Santutxu
no lo quiera,
el Moraza
es campeón"*

Eta horren "erruduna" Gerardo Jaso da, egun abesbatzaren zuzendaria eta hasierako sortzaile haietako bat ere. Gizonez osatua den arren, emakumeek ere parte hartzen dute, diru esketan lagunduz abesten ez duten beste gizon batzuekin batera (hau bakarrik Agate Deunaren eskean). Jendea gehiena Uribarrikoa da, baina asko eta asko Santutxu aldera bizitzen joan da eta hau aitzaki ona izan da auzotik atera eta beste lekuetan abesteko ere, bai Agate Deunaren bezperan bai bestelako egunetan ere, jaietan adibidez.

Auzoan, San Migel egunean, auzoko jaien barruan, eta Bilboko Aste Nagusiko Ostiralean Zazpi Kaleetan zehar ibiltzen dira, abestiak eta txikitoak tartekatuz. Bilboko 700. Urteurreneko ekitaldietan ere parte hartu zuten, Bilboko Aste Nagusira datorren Mungiako koadrilarena antzetzuz.

Egitaraua zabala den arren, ez dute entsaio askoren beharrik, kantaldia izan baino 3 edo 4 aste lehenagotik biltzen hasten dira eta. Tartean afariak erabiliko dituzte entsaio moduan. Eta entsaio bakoitzaren ostean, auzotik poteo herrikoia egiten dute, tabernetan alaitasuna eta umore ona zabalduaz.

bertin



25. Urteurrena, Uribarriko Jaietan egina, 2000. urtean
Behean: 2002ko Otsailak 3, San Blas egunean, Bilboko Areatzan


Garai onetan 70 kide bildu egin dira. Egundakoa ez da gehiegi jaitsi baina igarri egiten zaie jende falta hori. 1975tik hona kide berdinak dira (fisikoki aldatuta agertzen diren arren). Hori dela eta arazo-

duten dirutik eskuratzen dute. Baina egun horretan batutako sosen apur bat besterik ez dute hartzen, apurtutako makilak berritzeko erabili behar dutena. Gainontzeko guztia behar duten giza elkartei eman ohi diete (elkarte benefikoak) edota batzuetan, jaiak antolatzen dituzten auzoko batzordeari laguntzeko ere. Egiten dituzten afariak, poteoak eta gainerakoak euren patriketatik ateratzen da.

Azkenik esan lagun talde honek duen asmoa, herriko beste ohiturari jarraibidea ematea besterik ez dela, ahalegina egitea horiek ez galtzeko, eta abestea gustuko duen guztia animatu eta abesbatzan parte hartzen ere gonbidatzea.

txoa daukate belau-naldi berriekin, jendea abestea gustatuko ez balitzai bezala. Orain urte gutxi gazte lagun talde bat sartu zen bultzada-txoa ematekotan, baina oraindik goiz da emaitzak ikusteko.

DIRUA NONDIK
Ibilerari dagokionez, finantziarioa Agate Deunan ateratzen



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

URTEURREN JENDETSUA

Santutxuko inauteriek lehen mende laurdena bete dute



Lehen mende laurdena bete dute eta lerden-lerden mantentzen dira. Urteak aurrera joan arren, Santutxuko inauteriak ez dira zimeldu, ezta gutxiagorik ere. Eta bertan egoterik izan ez bazenu horren berri zuzena eduki dezazun, hona hemen gure kronikaxoa eta argazki ale preziatu batzuk.

Testua: Iratxe Ruiz / Argazkiak: Iñigo Azkona

SANTUTXUKO INAUTERIEN 25. URTEURRENA ospatu zen pasa den otsailaren 17an. Aratusteen jaialdia Otsailak 9an, larunbatean hasi zen gaueko hamarretan Luis Briñas eskoletan bertan 'Baile de gala' delakoa eman baitzen. Baina hurrengo asteko larunbatean hasi ziren jaiak berez. Eguerdiko hamabietan Santutxutik kalejira egin zuten Luis Briñaseko dantza taldearekin. Arratsaldeko seietan haurrentzako jaia antolatu zen Karmelon, bertara hurbildu zirenak mozorroa jantzita zuten. Ordu bat geroago Gaztedi dantza taldearekin kalejiran ibili ziren eta gogoratu behar egun osoan zehar 'Grua' plazan gargantua haurren zain egon zela.

Baina duda barik, Santutxuko inauterietako egunik eta garrantzitsuena igandea izan zen, betiko legez. Eguerdian auzoa goitik behera zeharkatu zuen mozorro desfilea egon zen. Dantzan ordu bete inguru eman eta gero, inguruko tabernetan pote bat edo beste hartu ostean, herri bazkariak gozatzeko aukera izan genuen santutxuarrok. Urteroko ohitura denez Karmeloko erromeriak ez zuen hutsik egin.



JENDETZA

Baina aurtengo Santutxuko inauteriak bestelakoak izan dira. 1978. urtetik hona hutsik egin gabe darraien jaia da hau. Horregatik, bertako jendearen harrera zein den aztertu nahi izan dugu. Desfileak jende pila bat kalera bultzatzen du eta aurten banan-banan zenbatuz ibili ez bagara ere, jendetza izugarria zegoela esan dezakegu. Desfilean parte hartu zutenak asko izan ziren baina kale ertzetan zain zitzuten ikusleak askozaz gehiago ziren.

Mozorro martxaren buruan zihozenak Sama Siku fanfarrea eta bikingoak ziren. Nekazaritza mundua gogora eka-



rri zigutenak zihozen ostean. 'Alicia en el país de las maravillas' filma irudikatu zuten untxi, Alicia, erregina eta pokerreko hainbat kartek. Ondoren ipotxak, pailazoak, erdi aroko jantziak zeramatenak, hawayarrak eta adin guztietako piratak agertu ziren. Musika ez zen faltatu, estilo desberdinetakoa entzungai izan zen eta. Honela, kabareteko doinuarekin batera, dantzan zihozen emakume taldea agertu zen. Ostean, euskal musikaz girotuta 'itsas armada berria' azaldu zen, autoan arrain handia zeramala marinez jantzitako taldeak.

Martxari bitxitasuna eta ikuslegoaren irribarrea ekarri zutenak ondoren zihozen emakumeak izan ziren. Hamar bat andre ziren, dotore jantzita denak, goitik behera apainduta. Bakoitzak 'Miss' aren banda bana zerman bularrean: 'miss lunes' eta 'miss neuras' aurkitu genituen beraien artean. Eskolako ikasle taldea zetorren beraien atzean, gehienak haurrak zirelako eta eskuz landutako mozorro bitxiak zeramatzatelako deskubritu geni-

GOJIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

Bikotz
ARLOPAK ★
ZILARRA C
OPARIAK ★
Dart. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

MESÓN GURETXE
Santutxuko poteo gunean



makilen ganean zera-
matzaten platerekin
oreka zaintzen ardura-
tsu zebiltzan txinata-
rrak, besteak beste. Zir-
koaren munduarekin
maiz lotzen den ijitoen
familia zebiltzan
atzean, ahuntza eta
organo doinua eta
guzti.

Azken boladan arra-
kastatsu dabilen Harry
Potterren mundua San-
tutxun egon zen, nola
ez. Baita telebistako
pertsoneia ezagunak
diren Epi eta Blas eta
dalmatak ere. Martxan
Iduna taldea eta
presoen alde-
ko alda-
rrika-



tuen. Loreak eta baserriko langileak ziren gehie-
nak.

Inauterien 25.urteurrena ospatuz zihoaze-
nak xanpaina eta guzti aurkitu genituen.
Ospakizun garrantzitsu honetarako armairuko
arroparik eta eleganteenak atera zituzten. 'Jo
ta be' taldea zihoan atzetik, zizare eta dra-
goiaren arteko animalia islatzen zutela. Gaz-
tedi dantza taldekoak zirkoa antolatu zuten.
Karpa baten azpian, haurren solasaldia alaitzen
ohi duten era guztietako pertsonaiak zeuden:
pailazoak, malabaristak, zenbait animali eta




penak
ez ziren fal-
tatu, antzinako
gariai gogora ekartzen zituzten
jantziekin batera.

Desfilera parte hartzera animatu
ez zirenak baina mozorroa aldean
zaramatenak asko ziren. Horien
artean Ben Laden, 'reportero de
Lola', butano botilak, Txankete eta
tenis jokalaria famatua aipatu
behar ditugu. Baina edozein mozo-
rro ospakizunean falta ez diren
mozorroak ere egon ziren, indio
eta bakeroak, mexikarrak, kaniba-
lak, printzesak eta komikietako
heroiak, besteak beste.

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

Jose Iragorri

*"Bakalao kantatzen
dudanean nik neuk
sartuko banu bezala
sentitzen dut"*



Athleticen partiduak irratitik segitzen
dituzten gehienak mahatsorri honen
ezpainetatik 'bakalao' berba magikoa noiz
aterako zain egoten dira. Jose Iragorrik
Herri Irratiko mikrofonoetan hamabi urte
egin ditu lehoien nondik norakoak behin
ere huts egin gabe kontatzen.
Etxebarritarra jaiotzez, hogeitaz hamar urte dira
Txurdinagan bizi dela. Bere semeak,
Begoñazpi ikastolako ikasle, Begoña eta
Santutxu futbol taldeetako beheko
ekipoetan dabilta. Egur bereko ezpala
dira, aita ere futbolista izan baitzen
kazetaria baino lehenago.

Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona

Erdaraz esaten den moduan, fraidea baino lehen, sukaldari izan zinen ezta?

Bai. Nik bost urte eman nituen Lezaman, zabaldu zen urte-
tik bertatik hasita, Athleticceko beheko taldeetan. Gero hiru
urte 'Firestone'n, gazteetan, eta urtebete hirugarren mailan
Deuston. Hemeretzi urterekin lesio larria eduki nuen eta
futbola behin betiko utzi behar izan nuen... eta kirol kaze-
taritzan sartu nintzen.

Ze postutan jokatzen zenuen?

Ni 9a nintzen, aurrelaria. Gol asko sartzen nuen. Benetan.
Baina Lemoan partidu batean zerbikalak hautsi nituen eta
oso lesio larria izan zen. Urtebete egon nintzen errekupe-
ratzeko ahaleginetan. Itzuli eta lehenengo entrenamen-
duan sudurra apurtu zidaten eta... azkenean utzi nuen.
Nire lesioa oso larria izan zen eta, badakizu, gazte zare-
nean ez dituzu ondorioak kontuan hartzen eta jarraitu nahi
duzu. Nahikoa frustratuta sentitu nintzen futbola uztean,
niri futboleko jokazua eta golak sartzea izugarri gustatzen
zitzaidalako. Orain 'bakalao' kantatzen dudanean nik
neuk sartuko banu bezala sentitzen dut, jokalaria eta gole-
gilea izan naizelako. Niretzat golak gauzarik inportantea-
na ziren.

**Zurekin orduan ibilitako futbolista gazteren bat heldu
zen gero Athleticceko lehen taldera?**

Bai, jakina. Nik Urkiaga, Lizeranzu eta gero txapeldun
izan zen kinta horrekin jolastu nuen txikitari. Gero De
Andres, Argote eta beste batzuk etorri ziren ni Lezamatik
atera nintzenera. Badakizu, nafar eta giputz jokalarik on
pilo bat fitxatu zuten eta eurei Lezaman tokia egiteko beste
batzuk kanpora joan ginen. Zorionez, egia esanda.

Eta hortik kazetari izatera pasa zinen...

Bai, ni naiz Leioako lehen kazetari promoziokoa. Behin
karrera amaituta....

Kirol kazetaria izateko asmoa zeneukan?

Ez, ez. Baina Bilboko Herri Irratian azaldu nintzenera lan
eske, esan zidaten kirol kazetari gisa bakarrik zegoela
tokia. Eta ni, poz-pez, jakina, horixe delako gustatzen
zaidana. Maketa bat grabatu behar izan genuen programa-
pilotu bat eginez eta gero dozena erdi baten artean hiru
aukeratu zituzten eta horietatik bat ni nintzen. Duela 19
urte. Hasieran badakizu, diru gutxi irabazten, kontratu
barik, udako txirringarritza, arrauna eta antzekoei esker
soldata itxurosoago egiten.... Eta 1988tik aurrera ondo.
Behin betiko kontratua egin zidaten eta kirol saileko buru
izendatu ninduten.

Eta Athleticceko partiduetan noiz hasi zinen esatari?

Handik gutxira. 1989-90 denboraldian. Txetxu Rojo
Howard Kendall ordez hasi zenean nik hartu nuen par-
tiduen narrazioaren ardura. Artean Fede Merino zen Ath-
leticen partiduak kontatzen zituena baina Herri Irratiko
zuzendari izendatu zuten eta eginkizun horri utzi zion.

Aurretik antzeko lanetan ibilia izango zinen?

Bai. Txirringarritza, Euskal Herriko Itzulia, Bizkaiko
Bira, pilota partiduak, ... Baina niri partiduak gustatzen zi-
tzaizkidan. Athletic delako eta ni benetan futbolzalea nai-
zelako.

**Hamabi bat urte pasatu dira. Teknikoki alde handia dago
ordutik hona?**

Bai. Hasi ginenean lerro mikro-
fonikoak erabiltzen genituen. Orain RSDI lerroak dira, baina
gauza bat esango dizut: aurten arazo larriak eduki ditugu noiz
eta Real Madriden kontrako kopa partidu bietan. Teknologia
askoz ere aurreratuagoa da baina azken urteotako partidu-
rik inportanteenetan huts egin digu. Garai batean ere telefono
mugikorraz egiten nituen. Egia da, hala ere, entzuleek faltan
igartzen dutela lehenengo soinu hura. Kopako final-aurrekoaren
lehen partidua, San Mamese-
koa, telefonoz egin behar izan
nuen eta soinua zaratsua goa
zen, zaletuen oihuak gehiago
entzuten ziren eta gero jendeak
esan digu asko gustatu zitzaie-
la. Antzinako estilokoa izan
zen.

**Eta kazetariak zelaietan lan
egiteko errazago daukazu?**

Ez, bai zera! Oso txarto dauka-
gu. Batzutan ikusleen artean
jartzen gaituzte, beste batzutan
kabina ziztrineta, edo korne-
r batean, ... Txarrenak dira biga-
rren mailatik datozenak. Kaze-
tarien lana errazten ez dute
pezetarik ere gastatzen. Lehen-
goan Betisen zelaian toki negar-
garri batean jarri gintuzten,
kabina txiki batean hamabi
kazetari sartuta.

**Teknikak eta pertsonak alda-
tu dira baina Athleticen par-
tiduak entzun nahi dituzte-
nen artean gehienek Herri
Irratia aukeratzeko dute. Zergatik?**

Nire iritziz sekretua da jendeak 'bakalao' oihuari hartu
dion maitasuna. Azken finean fidelitasun kontu bat da. Guk
beti eman ditugu Athleticen partiduak. Beste batzuk batzu-
tan bai, beste batzutan ez.

**Zuek hasi zinetean kate gehienek ez zuten Athleticen
partidua oso-osorik eskaintzen. Konexioak bakarrik.**

Horixe. Radio Nacionalak egiten zuen baina gero utzi
zion. Ser eta Cope berdin. Baina inoren buruan ez du kabi-
tzen Athleticen partidua badago Herri Irratian ez dugula
emango. Hogeita bost urte dira hor behin ere huts egin
barik. Eta gero 'bakalao' oihua arrakasta itzela izan zen.



Nondik sortu zen?

Oso garai polita zen Athleticentzat, eta ausardia pixka bat
ere izan zen. Ausardia eta arriskua izan zen.

**Kanpoko zelaietan 'bakalao' oihukatzen duzunean
zelan begiratzen zaituzte?**

Harri eta zur, jakina. Baina bueno, futboleko askoz ere
gauza harrigarriagoak ikusten dira. Ser katekoek Espainiak
Jugoslaviari azken minutuan irabazi zionean 'gol' Espai-
niako himnoaren musikarekin kantatu zuten. Sekulakoa
izan zen! Horrelako gauza bat entzun ondoren 'bakalao'-
ren oihua nahikoa klasikoa dela esango nuke.

1983an sortu zenuten oihua?

Bai, bigarren ligaren urtean hasi zen Fede Merino 'baka-
lao' oihukatzen.

Eta zergatik 'bakalao'?

Bizkaiko produktu tipikoa zelako. 'Txitxarro' ere erabiltzen
zen baina gehiago sartu dizkizuten golak esateko zuk sartu
dituzunak baino. Orduan, Bizkaiko arrain eta janari tipiko
bat hartu eta futbol mundura egokitu genuen.

**Athletic txarto doanean igarriko duzue partiduak kon-
tatu behar dituzuenok, ezta?**

Jakina. Iaz, esaterako, oso urte tristea izan zen. Partidua
irratitik kontatu eta gero erridikulua egin izanaren zentza-
zioarekin gelditzen nintzen.

**Kirol kazetarien artean ez ote dago 'nolako emaitza,
halako iritzia' emateko joera?**

Bai. Baina nahiko kontu konplexua da. Aurten Vigoko par-



Hori argi dago. Harro baleude, beste gauza bat izango zen. Azken finean nire iritziz talde honi nor-tasuna falta zaio. Ez daukate irabazteko sena.

Zu Lezamatik pasa zara. Zuk zelan ikusten duzu gaur egun?

Nire iritziz hori da gure etorkizun bakarra. Lezama zaindu, txukundu, diru gehiagoz hornitu eta tekniko gehiago jarri behar dugu. Baina egin behar duguna da aukeraketan asmatu. Eta horretarako jakin behar da ze motako jokalaria atera behar dugun hortik gero lehen mailan behar bezala erantzun dezan. Hor arazoak egon dira Amorrortuk eredu bat jarri duelako baina eredu hori ez da klubeko esparru guztietan onartuta izan. Orain Carlos Terrazas etorri da eta beste jokalaria mota bat lortu nahi du.

Orain arte ikusi duzunagatik, zorteak zein toki dauka futboleant?

Nire ustez oso eragin txikia dauka. Partidu bat baldintzatu ahal du baina ez gehiago. Eta arbitroak berdin.

Hamalau urteotan zein da zure oroitzapenik samurrena?

Entzuleen artean oroitzapen gozoa utzi duten partiduak, batez ere 'bakalao'ak kantatzeko moduagatik. Adibidez, Newcastleren kontrako partidu biak, hango eta hemengo. Hemengo partiduan 'bakalao' kantatu nuenean ez nuen nire ahotsa entzuten, hain giro itzela zegoen. Eta gero Zaragozaren kontrako partidu hura, Athletic bigarren gelditu zenekoa, 'kalimutxoaren partidu' Luis Fernandezek esaten zuen bezala.

Eta mingotsena?

Iazko urte osoa. Real Madriden aurkako partiduaren ezik, gainerako guztia. 7-0 Bartzelonan, 5-0 Oviedon, ... eta ekipoa guztiz birrinduta azken partiduetan. Lotsagarria izan zen. Azken partiduak txakurren putzaren parekoak izan ziren.

Zelako harrera egiten zaio Athletici gainerako zelaientan?

Oso harrera txarra. Zelairik atsegina gurekin Soriako Numanciarena izan da. Eta txarrena, duda barik, Anoeta. Sevilla edo Madrilekoak baino okerrago.

tidua aztertzen duzu eta zein da ondorioa? Mirari bat izan zela. Emaiza ona bai baina... Niri gehien hunkitu nauten Athleticen partiduetako bat galdu egin zen, etxean 2-3 Real Madriden kontra. Niretzat partidu ikaragarria egin zuen, eta hala eta guztiz ere galdu zuen.

Eta jokalariai zer?

Sarritan, irratieta, hala kazetariok nola entzuleek ere, jokalarientzat egiten dugu berba. Eurak motibatzeke, euren ilusioak pizteke, benetan zeozer handia egiteko moduan daudela sinets dezaten.

Baina argi dago ez dutela zaletuek beste senti-tzen...

GALDERA LABURRAK

Film bat: 'El silencio de los corderos'.

Liburu bat: 'La milla verde'.

Kanta bat: 'Lover, Lover', Leonard Cohen.

Ianari bat: Bi: paella eta Mintxuren bakailaoa pil-pilean.

Izen bat: Maialen.

Leku bat: Bilbao.

Futbolista bat: Sarabia.

Amets bat: Gabarra ateratzea.

Kamioiaren istripuaren ostean lehen bezain lasai zoaz metroan?



ALESANDERE (SANTUTXU)

Erderaz esaten den moduan, más tranquila que el pipas noa. Ez nau kezkatzen.



IZASKUN (SANTUTXU)

Ni lasai noa. Behin gerta-tzeagatik ez du esan nahi berriro pasatu behar duenik.

ITZIAR (SANTUTXU)

Oso lasai noa. Gaur goizean hartu dut, esate baterako, eta oso trankil joan naiz.



ARIANE (SANTUTXU)

Bai. Lasai-lasai noa. Garraio segurua dela uste dut eta sarritan erabiltzen dut.



FELIX (SANTUTXU)

Irakurri dut eta kristo handia izan zen baina ez nau kezkatzen.



IKER (SANTUTXU)

Ez naiz larritu batere. Metroa oso segurua da.



LIHER (TXURDINAGA)

Metroa segurua izan bada. Baina nire apostua beste garraio mota batzuk dira: autobusa, bizikleta...



AITOR (BERMEO)

Lasai noa, hori izan da lehenengo bider holakorik pasatzen dena.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Sorgintxulo itxi nahi du Bilboko Udalak

Karmeloko lokal horretatik gazteak atera eta jubilatuentzako zentroa atondu gura du

Testua: J. Larrazabal

Urtarrilean hiru urte bete zuen Sorgintxulo gaztetxea arriskutan jarri nahi du Bilboko Udalak. Hirigintza sailak bere sailkapena aldatu nahi du lokal horietan bertan bestelako ekipamendu bat egokitu ahal izateko. Izan ere, Udalaren asmoak beteko balira gazteak kanpora bota eta haien tokian jubilatuentzako zentro bat atonduko lukete.

Proposamena otsailaren 28ko udal batzar osoan eztabaidatu zen. Ibon Aresok zuzendutako Hirigintza sailak aurkeztu zuen aldaketaren ideia. Asmoa, oraingo gaztetxea hustu, etxea zaharberritu eta erretiratuentzako eguneko zentroa egokitu. Zinegotzi jeltzaleak zehaztu zuenez, ez dago Karmeloko eraikin hori botatzerik ondoko eliza -mendebete baino zaharragoa- bera kolokan jarri barik.

SORGINTXULOREN ERANTZUNA

Sorgintxulo gaztetxeko gazteak, jakina, ez datoz bat udal agintarien asmo horiekin. Batetik, oso argi daukate hiru urte egin dutena ezin dutela utzi alperrik galtzen. Instituzioek -eta bereziki Bilboko Udalak- ezer antolatzen ez duten auzo batean, Santutxun, gazteek ekitaldi soka luze bat sortu dute. Hain luze eta emankor ezen, gazteek eurek esana, auzo-etxearen jarduna baino lau aldiz handiagoa izan den.

Bestalde, gazteek nabarmendu dutenez, jubilatuentzako zerbitzuak egon badaude Santutxu eta inguruetan. Ez dago, ostera, gazteentzako eta kultur jardunerako lokal bakar bat ere ez.

GAZTETXEA ZERTAN DEN

Hiru urte duela gutxi bete zituen Sorgintxulok. Ez dira asko baina badira nahikoak ibilbide oparoa egin duela esateko. Santutxuk eta bertako gazteek igarri dute auzoan gaztetxea dagoela. Horra hor, esate baterako, herri liburutegia, informatika gela, arte erakusketa aretoa eta txalaparta eskolak.

Horra hor ludoteka, gazteen olgetetarako, mendi taldea eta euskara, txistu eta bertso eskolak. Horra hor musika eta antzerki taldeen entsaioak. Horra hor zinema emanaldiak, noizean behin euskarazkoak gainera.



Eta horra hor zenbat hitzaldi, eztabaida, batzar, jai eta kultur ekitaldi. Guztira, hogeita hamarren bat izan dira orain arte Sorgintxuloko lokalak erabili dituzten elkarteak. Ez da bide makurra gazteok jorratu dutena, ez horixe.

Guzti hori behin betiko amaitu nahi du Bilboko Udalak oraingoan. Sorgintxulo orain hiru urte sortu zen, gazteek hamasei urtez hutsik egondako Karmeloko lokalak -fraide karmeldarrenak- okupatu zituztenean. Lokala txukundu eta berehala hasi ziren euren artean eratzten eta ekitaldiak antolatzen. Arazoak ere ez dira falta izan. Batetik, karmeldarrek ez zuten ekimen hori begi onez ikusi. Bestetik, udaltzainak behin baino gehiagotan azaldu dira gaztetxean musika egon denean. Azkenik, prentsa espainolaren helburu ere izan da Sorgintxulo. 'La Razón' eta enparauek artikulu beldugarriak eman dituzte plazara esanez bertan dabilzan gazteak etakideak edo badirela.

Auzoetako jai herrikoia bultzatzeko 'Auzotarrok' plataforma osatu da

Zurbaran, Uribarri, Castaños eta Santutxuko jai batzordeak partaide dira

Bilboko auzoetako jai bultzatzeko eta sostengua emateko asmoz sortu da 'Auzotarrok' plataforma. Hamar jai batzordeetako ordezkariak batu dira bertan festa horien bidea errazteko

eta euren kalitatea hobetzeko. Besteak beste, Zurbaranbarri, Uribarri-Matiko, Begoñaibarra (Castaños) eta Santutxuko jai batzorde maha-tsorriak daude tartean

Testua: J. Larrazabal

Bilboko Udalaren aurrean ordezkari ofiziala izatea, elkarren arteko laguntza areagotzea eta jaiak antolatzeko bidea erraztea da 'Auzotarrok' plataforma sortu berriaren xedea. Orain arte bakoitzak bere aldetik egin dituen jardun askotan elkarren arteko sostengua eskertzeko izango dela pentsatzen dute auzoetako jaien antolatzaileak.

Parte hartzaileak hamar jai batzordeak dira: Lau mahatsorriez gain, Deustu, San Ignazio, Errekalde, Zorroza, Altamira eta Bilbo Zaharreko jai batzordeetako ordezkariak dihardute 'Auzotarrok' en. Elkarte hauek jai herrikoia defendatzen dituzte, euren auzoetako festak modu demokratikoan eta herritar guztiei atea zabaltzen dituzte alegia.

'Auzotarrok'ek lortu nahi dituen helburu batzuk Udalarekin lotuta daude. Batetik, jai batzorde horien ordezkariak bateratu izan nahi du jai batzorde guztiak eragiten dituzten gaien inguruan. Bestetik, jaiak antolatzekoan egin beharreko tramite guztiak erraztea eta bide horretatik abiatzen diren jai batzorde berriei laguntza ematea izango dira zereginak.

Bestalde, elkarren arteko komunikazioa bideratu nahi dute jai batzordeek.

AUZOETAKO JAIK

Bilbon auzo askotan ospatzen dira jaiak. Euretari batzuk txikiak eta apalak dira, egun bakarrekoak eta bi-hiru pertsonen lanari esker egiten dira. Ez dira horiek 'Auzotarrok' en batu direnak. Plataforma berrikoak jai batzorde gisa eratuta daude. Jai batzorde ireki horietan auzo bakoitzeko elkarte eta bizilagunak -nahi duten guztiak- elkar-tzen dira eta egun batzuetako jai egitarau zabalak prestatzen dituzte.

Normalean auzoetako jai horiek asteburu bat baino luzeagoak izaten dira. Askotan asteburu biko jaiak izaten dira eta txosnak dituen jai eremua atontzen dute. Gaur



Iazko Zurbaranbarriko jaietako irudi bat

egun Deustukoak izango dira, seguru asko, jende gehien biltzen dituztenak, azken urteotan gorakada itzela hartu dute eta. Gurean ere lagun asko batu ohi da Santutxun, Begoñaibarran (Castaños) eta Uribarri eta Zurbaranbarri.

UDALA ETA AUZOETAKO JAIK

Bilboko Udalak ez dauka zerikusi handirik auzoetako jaiekin. Azken hogeita bost urteotan festa horiek herritarren lanaren emaitza izan dira. Udalak, kasurik onenean, azpiegitura zerbitzu batzuk erraztu eta dirulaguntza txiki batzuk eman ditu. Oraingoan, ostera, Bilboko Udaleko Kultura sailak auzoetako jaiak arautzeko ordenantza prestatu du. Hasierako proposamenak ordutegiak murriztu eta jai egunak gutxiagotu nahi zituen. Txosnak nork ipiniko zituen erabakitzea ere udal arduradunen esku gelditu behar zuen. Udal barrutiek protagonismoa hartuko lukete eta jai batzorde herrikoiek erabakitzeke gaitasun barik geldituko lirakeke. Jakina, zirriborro horren aurrean jai batzorde asko izan dira euren desadostasuna agertu dutenak. Bilboko Udalaren eta auzoetako festen antolatzaileen arteko akordioa beharko da gure bazterretako jai horiek kaltetuta atera beharrean indartuta irten daitezen.

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tfona. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

ADI
ASESORIA
FISCAL - CONTABLE - LABORAL
MÉRITO - MERCANTIL
Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net
Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!
SAAK

Uribarriko zonaldean aparkalekuak: auzokideentzako obsesioa eta Udalak ebatzi behar duen arazoa

Une hontetan Uribarriko inguruetan Bilbo osoan ematen den aparkaleku ezarik handiena dago. Aparkaleku beharra 1500 plazetan zehazten da, egun ez baitago kotxe bakar batentzat ere leku fisikorik. Legearen barruan aparkatzeko, gaueko hamarretatik aurrera bataz beste hogei minutuz kotxearekin bueltaka leku bila ibili beharra dago, edo bestela, etxe ingurutik kilometro batetara kotxea utzi beharko da.

Gure Etxea auzokideen elkar-teak Udalarari erreklamazio, bilerak eskatu, aparkalekuak non kokatzeko proposamenak askotan egin dizkio, eta gaur da eguna noiz ez duen haren erantzunik jaso Udaleko Lan eta Zerbitzu Sailak arazoa konpontzeko dituen asmoen inguruan. Era ez zuzenean jakin izan dute zonalde horretan neurri txikiko bi aparkaleku egitea adostu dela, beti ere aurrekonturik gabe eta gainera auzokideekin hitz egin gabe ere.

Hau dela medio, Gure Etxea auzokideen elkar-teak



inguru horretan dagoen aparkaleku ezaren arazoari era oso batean irtenbidea bilatzearen aldeko mobilizazioak sustatzekotan dabilta. Orain arte bi bilkura burutu dituzte, eta datozen egun eta arazoari irtenbidea bilatu artean bestelako handiagori egiteko asmoa azaldu dute.



JOSE MARI ASTOLARI ongi etorria

Espetxean 20 urte eman ostean aske eta bere senide eta lagunaren artean otsailaren 3an ongi etorri sentitua egin zitzaion Uribarrin. Aspaldiko ezagunak eta ezezagunak hurbildu ziren agurra eta bestelako opariak emateko, haien artean bizikleta moderno zoragarri bat. Jose Mari, bere izaera horrela omen da eta, hunkituta eman zuen omenaldia iraun zuen denbora osoa. Eta berdin gero, Zazpi Kaleetan egin zen bazkariko une batzuetan.

Tunisiako bazterrak 'Kaiku' tabernara ekarri ditu Iñigo Azkona argazkilariak

Iñigo Azkonak 'Tunisia, basamortuaren atea' argazki erakusketa jarri du ikusgai Santuxuko 'Kaiku' tabernan. BERTONEko argazkilariak hamahiru erretratu eskegi ditu ostatu-hormetan. Iazko martxoan egin zuen Magrebeko herrialde horretarako bidaia.

"Astebetez egon nintzen Tunisian eta bidaia turistiko hutsa izan zen", argitzen du argazkilari mahatsorriak. "Horregatik", zehazten du, "turistentzako bazterretan arin-arin egindako argazkiak dira erakusketakoak. Ez dut Tunisiako benetako irudia ekarri nahi izan, horretarako biderik ez dudalako izan. Bakar-bakarrik herrialde horrek ematen duen lehen inpresioa islatu gura izan dut".

Argazkiak Tunisiako hegoaldean daude eginda, Saharako hareatza zabalen atean bertan. Hamahiru erretratueta paisaiak -hondarrez inguratutako palmondo bakaratiak, gatzazko lakuak, ...- eta jendeak ikus daitezke. Azken hauen artean merkatuko saltzaileak, artisauak eta lur azpiko kobazuloetako biztanleak agertzen zaizkigu, besteak beste.

Koloretakoak dira argazkiak. Hortxe daude tuaregen



urdina, harearen horia, emakumeen arroparen berdea eta hortzemugako zuria. Hauxe du Iñigo Azkonak bere lehen argazki erakusketa. Badu, hala ere, aurretik bestelako erakusketaren eskarmentua. Izan ere, berak egindako posta zigiluak jarri zituen ikusgai duela urte bi. Zigilu bereziok eskutitzetako azaletan itsatsiaz gutunak bidaltzeko erabili zituen.



Santa Ageda eskea kalean

Urtero lez, hainbat mahatsorri makila hartu eta kalera atera zen Santa Ageda bezperan eskean ibiltzeko asmoz. Goizez eskola eta ikastoletako umeen txanda izan zen. Iluntzean, oster, nagusien ordua izan zen. Auzo guztietan atera ziren multzo kantariak. Argazkiak, Begoñazpiko ikasleak Sei Izar plazan kantu kantari.

URIBARRIKO AUZOKIDEAK, KEZKATURIK

Badirudi Udaletxearen atzeko aldean bizitzeak abantailarik ekarri ez baina berez beharrezkoak diren beharrak asetzeko ere ez duela balio. Bizilagunen kezka nagusietako bat, egun hauetan auzoetarako aurkeztu diren aurrekontuetan euro zentimo bat ere ez dela egongo Uribarrirako, ez zaharberritzeko, ez hain beharrezkoak diren aparkalekuak egiteko, ez aisialdi guneetarako,....Bilboko gainontzeko auzoek zertxobait gutxienez eskuratu ahal izango dute.

BERTONEk, lau urte

BERTON, mahatserriko aldizkari euskalduna, lau urte bete ditu otsailean. 1998ko otsaila hartan Julio Ibarra azalean zela atera zenetik hona BERTONEk 41 zenbaki kaleratu ditu. Bere orriotatik gure inguru hurbileko hainbat kontu, albiste eta lagun agertu dira lau urteotan. Gainera, aurreko zenbakitik hona dohain banatzen da. Zorionak guztioi eta elkarrekin hainbat gehiago ospa dezagun!

Lanbroa

ARTESANIA LOIDI

Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

D E R R I K A R I A K

KIRIKIÑO IKASTOLAK ARO BERRI BATI EKIN NAHI DIO KIROLA ETA EUSKERA UZTARTUZ

Datorren ikasturtean, ikastolaren 25. urtemugarekin batera inauguratuko da kiroldegi berria



Gaur egun Gabriel Aresti etorbidetik igarotzen zareten guztiok kirol zelaietako zuloa eta indus makinak ikus ditzakezue ikastolaren aurrean.

Kirikiñoiko zuzendari Miguel Angel Gazteluk azaldu digunez oraingo proiektu handinahi hau beste egitasmo batzuen ondorio eta garapena da. Urteak dira derrigorrezko bigarren hezkuntza eta batxilergoak Txurdinagara aldatu zirela. Ondoren hirugarren lerroa zabaltzeak ikasle kopurua handitzea ekarri zuen. Harrez gero handitu beharra garbi ikusi zen eta 1997an haur eta lehen hezkuntzako eraikina altxatu zen besteren atzeko aldean.

Bi eraikinak elkarren ondoan egoteak antolaketa errazten zuen eta eremu trinkoa finkatzen zuen ikas-

tolarentzat, ikasle taldeak nahastu gabe.

Kiroldegi berria ondorio logikoa da beraz. Kirolari garrantzi handiagoa eman nahi zaio. Instalakuntza honekin urte osoko erabilpenari eutsiko zaio bai ikasleentzat bai gurasoentzat eta ikastola barruko jardueretan zein ikastolaz kanpokoentzat.

Kiroldegi honek hainbat zelai eta bestelako ekipamenduak hartuko ditu bere barruan: futbito eta

**ASMO HANDIENETAKO
BAT BIZITZA SOZIALA
SUSPERTZEA DA IKASTO-
LAREN INGURUAN**

saski baloi zelaiak, pilota lekua, ekintza antolatuak egiteko gimnasio zabala, psikomotrizitate gela handia ume txikientzat, gurasoentzako taberna itxaronaldiak arintzeko eta inoiz behar izanez gero edozertarako dela ere gela gehiago egiteko lekua.

"Gune euskalduna izan behar da, lanean ibiliko diren langileak euskaldunak izango dira eta antolatuko diren ekintzetan euskararen presentzia ziurtatuko da" adierazi zigun zuzendariak

**GURASO, IKASLE ETA
IKASLE OHIENTZAKO ETA
AUZOKIDE GUZTIENTZAT
ELKARGUNEA IZAN
NAHI DU**

Lehenengo hogeita bostak

Datorren ikasturtean Kirikiño ikastolak 25. urtemuga ospatuko du. Mende laurden honetan mahatserria asko aldatu da, baita ikastola ere. Hainbat ekintza prestatu ditu antolatzen dabilen lan taldeak. Antolaketa hasierako pausua oraingo eta lehenengo guraso eta ikasleak jakinaren gainean jartzea izan zen.

Bigarrena, berauei bidea eman lan taldean parte hartzeko. Eta horrela osatu da gaur egun ari den taldea,

horietako asko ikastolako historikoak. Asmoa ez da aste batean edo hilabete batean ekitaldi trinkoa egitea baizik eta urte osoan ekitaldiak zabaltzea.

Euskara, kirola eta hezkuntza uztartuz mende laurdeneko lana islatuko da txapelketen, hitzaldien eta lehiaketen bidez. Asmo nagusietako bi abian dira dagoeneko; anagrama lehiaketa eta 25 urteko ibilaldia bilduko duen liburua.



IHAUTERIAK ESKOLETAN ERE

Otsaila inaute edo aratuste aroa izaten da gurean. Horrelaxe suertatu da aurten hala kaleetan nola gure eskola eta ikastolatan. Milaka ume mozorrotu dira eguntan eurak ere jai bitxi hauetan parte hartu nahi zutela erakusteko. Irudian, Txurdinaga eskolako umerik txikienak.

hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
Abizenak:
Kalea: Zenbakia: Solairua:
Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
Telefonoa:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN

Sinadura

Amaia Piedra, berriro ere bigarren Euskadiko kross txapelketan

Testua: Unai Cuevas

Ortuellan jokaturako Euskadi Kross txapelketa nagusian, Amaia Piedrak bigarren tokoa eskuratu zuen bosgarren aldiz. Santutxuarrak hasiera indartsua izan bazuen ere (berak zaitu zuen aurreko taldea, Cristina Petite eta Leire Medinarekin bakarrik geratuz), zirkuitoari hirugarren eta azken itzulia eman orduko etsi egin behar izan zuen Petite abadiñarraren erritmoa jarraitu ezinik. Aurten ere, beste behingoz, Euskadiko txapeldunorde geratzea-ekin konformatu behar izan du atleta mahatsorriak.

3.000 METROTAN, LAUGARREN

Bestalde, Sevillan jokaturako Espainiako txapelketako 3.000 metroko proban, Aravi-Ortuella taldeko mahatsorria laugarren sailkatu zen. Oraingo honetan ere, Amaia Piedra bere taldekidea den eta brontzeko domina lortu zuen Petiteren atzetik sartu zen.

Hasiera baten, Vienan egingo den Europako txapelketarako txartela eskuratzekotan egon zen. Izan ere, gutxieneko marka (9.05) bete baitzuen eta bigarren sailkatu zen Luisa Larragak Austrian parte hartzeari uko egitekotan egon baitzen. Baina azkenean, santutxuarrak ez du zor-terik izan eta ezin izango du europar txapelketan parte hartu.



ZURI BALTZA

Mahatserriko Zuri Baltza xake taldeak hirugarren postua eskuratu du Euskal Ligan. Azken jardunaldietan bigarren sailkatu den Bilboko Peña Rey Ardidi irabazi ostean, honen lekua eskuratzeko aukera izan zuen baina azkenean, 20,5 punturekin, puntu erdira sailkatu zen. Irabazlea Donostiako Gros Xake Taldea izan da. Talde gipuzkoarrak 23 puntua erdietsi ditu Ligan eta bigarren urtez jarraian Euskadi txapeldun bihurtu da. Garaipen hauetan zeresan handia izan du orain dela urte bi Felix Izeta maisu zestoarraren fitxaketak.

ATHLETICEKO GAZTEA SANTUTXUN

Athleticaren Ohorezko Mailako jubencil taldeko Blanchard Mooussayou jokalaria, Santutxuko taldera itzuli da berriro ere. Izan ere, aurretik talde mahatsorrian aritutakoa da Blanchard, eta orain utzitako gisa bueltatu da. Getxo futbol taldea ere bere atzetik ibili zen baina,

azkenean, Santutxuk jokalariekiko lehentasuna izanik bere jatorrizko taldera bueltatu da.

ALVAREZI ZAZPIGARRENA FALTA ZAIO

Mikel Alvarez, Vinson (4.897metro) tontorrera ailegatu ostean, "zazpi gailurren" erronka betetzeko ekinean bakarra falta zaio. 1997az geroztik, Aconcagua, Elbruz, Kilimanjaro, Mackinley-Denali, Everest eta Vinson igo ondoren, udaberrian, Carstenz Piramidearen gailurrera iristea falta zaio zazpikotea betetzeko.

Otxarkoagako mendigoizaleak, beste lau kiderekin batera, 55 gradu zero azpitiko temperatura jasan behar izan zuen mendi tontorrera ailegatzeko (goian 40 gradu zero azpitik pairatu behar izan zituen).

Orain, zazpi gailurretako azkena igo aurretik, Carlos Garcia eskalatailearekin batera Patagoniako Fitzroy mendatea igotzeko asmoa du.

GOIKOGANA (697 m.) eta KAMARAKA (795 m.) Arrankudiagatik

Bilbotik Laudiora doan bidean (17 km.-tara) Arrankudiaga herrira helduko gara. Han hirigunean sartu gabe eskumaldean dagoen errepidea hartuko dugu eta metro gutxitara kotxeak uzteko leku egokia ikusiko dugu. Guk bertan utzi genuen kotxea (A). Handik aurrera errepide estu honek esku-marantz jotzen du eta aurrera jarraituz eskumaldean hilerria (B) dago.


Handik laster errepideak baserri baten ondoan eskumaldera jarraitzen du, baina guk baserri horren ondoan ezkerretara ateratzen den errepidea hartu genuen (C) aldapa gora, beste baserri handi eta eder batera heldu arte, han bukatzen baita errepidea (D).

Bertan baserri atzetik eta eskumarrantz abiatzen den basabide hartuz, laster bidegurutze bat dago, eta bien artean herriko urbidearen giltzak gordetzen dituen txabola bat (E). Orain ezkererantz eta beti lepo gainetik jarraituko dugu aldapa gora. Aurrera begira ezkererantz lehen bizi "Goikogana" mendia eta bere eskumaldean gure erreferentzia izango den "Kamaraka" ikusiko ditugu; basabide asko dagoenez bide zuzena galtzea erreza da eta.

Etorri garen lepotik ezkerretara jarraitzen duen basabidetik pinu tartean, laster ikusiko dugu bidexka (F) estu bat, aipaturako bi mendien tartean dagoen lepora zuzen jotzen duena. Hara heltzean ezkerretara joko dugu "Goikogana" tontorra (697 m.) lortzeko; ordu bat eta 15'. Handik gailurreria osoa zeharkatuz "Kamaraka" tontorrean (795 m.) egongo gara (25').

Guztira Arrankudiagatik "Kamaraka" tontorreraino ordu bat eta hiru laurden.

Itzultzerakoan beste aukera batzuk ere badaude, bata Kamaraka tontoretik Ermuko Santa Luzia auzora eta handik errepidez Laudiora, Eta bestea, guk egindakoa, gailurreriatik "Goikogana"rantz itzuliz honen eskumaldetik aldapa beherantz abiatzen den basabidetik Areta herriraino.



JAKINGARRIAK

Tontorrak: Goikogana (697 m) eta Kamaraka (795 m)

Iraupena: Ordubete eta laurden Goikoganaraino eta ordubete eta hiru ordu laurden Kamarakaraino.

Aukerak: Ermuko Santa Luziara bisita.

Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Sugea taberna
Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU
TABERNA
Ricardo Bastida plaza



LAIDA MARTINEZ: "Literatur lehiaketak ondo daude baina guk idazten duguna irakurtzen ez bada, akabo!"

Laida Martinez idazle mahatsorri gaztea dugu. Lau urte daramatza idazten. Ibilbide laburra bere esanetan baina guztiz oparoa dudarik gabe. Izan ere, lau urteotan sari ugari metatu ditu. Azkena aurtengo Tene Mujika ipuin sariketan irabazitakoa da, 'Gaua' lanarekin. Baina Laida ez da sariketa honetan nabarmentzen den lehen aldia. Iaz lehiaketa bereko hirugarren saria jaso zuen.

*Testua: Iruñe Berro Urrizelki
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Betidanik gustatu izan zaio irakurtzea eta duela lau urte animatu zen idaztera. Lehendabiziko lanak gazteleraz egin zituen eta lagunei pasa zizkien haien iritziak jakin nahian. "Ez zitzaizkien asko gustatu eta euskaraz saiatzearabaki nuen. Halere, ez dut berriz ere gazteleraz idaztea baztertzen, beste aukera bat da", dio. Modu honetan hasi zuen bada Laidak literaturan barrena ibilbidea. Horrela euskaraz egindako lehendabiziko lana Gasteizeko Udalak antolatutako lehiaketa batera aurkeztu eta aipamen bat lortu zuen. Honek indarrak eta animuak eman zizkion hasitako bideari ekiteko.

Arestian esan bezala sariketa ugari irabazitakoa da Laida. Oihartzun handia izandakoa, ordea, Debako Tene Mujika lehiaketa. Bertan diru saria jasotzeaz gain lehendabiziko sei lanak argitaratzen dira bilduma bat osatuz. "Epe luzera askoz interesgarriagoa da hau dirua baino" dio Laidak.

'Gaua' lanarekin irabazi du aurtengo lehengo saria. Epaimahaikideen hitzetan "errealitate gordin bat erakusten du, ausardiak, zehaztasun eta distantzia literario egokiz". Aurreko urtean berriz, drogaren atzaparretan lehenik, eta prostituzioan ondoren erortzen den neskato baten egunerokoa kontatu zuen

'Egunkari laburra' ipuinean.

Honekin lehiaketako hirugarren saria eskuratu zuen. Tartean izan dira Bermeo, Ordizia eta Bilboko Udaleko Emakumearen Zerbitzuak antolatutakoak. Hauetan ere sari anitz jaso ditu lau urteotan. Aipagarria Zumaiako lehiaketan jazotakoa. Lehendabiziko eta bigarren saria eman ostean erabakia atzera bota behar izan zuten. Izan ere, 'Gerrakoak' eta 'Hondamendia' ipuinek aurretik Erreterria Hiriaren eta Ordiziako Udalaren sariak lortu baitzuten, hurrenez hurren. Honen arrazoia, gutxi idaztea dela argitzen du Laidak. "Ez dut astirik eta gutxi idazten dut. Idatzitakoa zenbait lehiaketara bidaltzen dut batean ez bada, ea bestean zortea ote dudan".

Momentuz ez du lanik argitaratu, "lasai eta poliki" aritzea nahiago baitu. Berriz ikasten hasi da eta, esan bezala, denbora askorik ez duela dio, horregatik zerbait argitaratzeko etorkizunean izango duela paradarik dio. Horrez gain, zerbait argitaratzekotan patxadaz egindako zerbait izatea eta kalitate maila jakin batekoa nahi duela gaineratzen du eta, beraz, orain ez dela une egokia.

IKUSPEGI ZABALEKO LITERATURA

Gerraz zein prostituzioaz, helduentzat zein umeen-



tzat... Laidak egiten duen literatura benetan anitza da. Iaz hurrei zuzendutako liburuxka bat idatzi zuen. Pertsonai batzuen abentura eta desbenturen kontakizuna egiten du bertan.

Halere, Laida bat dator literatur kritiko askok diotenarekin. Alegia, euskal literaturaren orpo ahula irakurle goan dagoela dioten horiekin. Bere ustez literatur lehiaketak ezinbestekoak dira literatura bultzatzeko baina era berean, hauek nahikoa ez direla ziurtatzen du. Gakoa umeek irakurketaren inguruan jasotzen duten hezkuntzan dago bere aburuz eta zentzu horretan erabatekoa da bere esanetan, "literatur lehiaketak ondo daude baina guk idazten duguna irakurtzen ez bada, akabo!".

Bestalde, idazterako orduan erabiltzen duen metodoaz ere mintzatu genuen mahatsorri honekin. "Irudi bat etortzen zait burura eta hortik aurrera istorioa eratzen dut, bertan eguneroko pasarteak edo fikziozko gertaerak nahasi ditzaket" gaineratzen du Laidak.

Biktimganako Laguntza Zerbitzua
Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
y Cooperación con la Justicia

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Maiteagana joateko esan geuntsun, ez maitea ito arte besakartzeko, astakilo hori!

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Trebezia handia erakutsi dozu orain arte kazuela artean... desagertzeko.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Aupa Athletic-ka ezin dozu emon bizitza osoa. Zeozer gehiago be egin egingo dozu, ezta?

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Negozio galanta egin dozu fitxaje horregaz. Ez ete da hoba izango hortik saltzea?

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Dotore-dotore jantzita zabilta azkenaldion. Ikusten da konpainia barriaren eragina!

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Iraila asa dago oraindik. Zuk zeuk erosi beharko dozu inoren oparia itxaroten egon barik.

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Negar malkoak isuri arte egiten dozu barre. Zigarrotxo horien kontua izango ete da?

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Lehenengo arazoa agertu eta segituan etsi. Ez dekozu ganorarik, lagun. Itxaron zaitetz sikieran hamargarrena azaldu arte!

Sagitaris: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Zerua zer zan ez dozu orain artean jakin. Existituko ete zan be zalantzan jarri izan dozu sarritan. Orain bada kizu baietz, badala. Real Madrileko partiduaren lehen zatian ikusi zenduen.

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Ez larritu, neska. Uda bitartean lau hilabete luze dago orain arte irabazitakoa atzera be galtzeko.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Negargarri emoten dozu holan jantzita. Itsututa gabilzan arren itsuak ez gara, kontu egizu.

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Horiek komeriak gero egindako anka sartzea konponitzeko! Inoiz ikasiko dozu zeozer esan baino arinago apur bat pentsatzen?

agenda

MARTXOAK 7
SU TA GAR. ROCK
KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

MARTXOAK 8
ANARI. BIDE ERTZEAN.
KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

MARTXOAK 14
CELTAS CORTOS. KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

MARTXOAREN 15-24
DEUSTUKO SAN JOSE JAIK.

MARTXOAK 17
URDUÑAKO TOLOGORRIRA
MENDI IRTEERA LENDOÑO
GOIKOATIK HASITA.
BOLUETAKO EGUZKI LOREA
MENDI TALDEA.

MARTXOAK 17
OTSONDO (BAZTAN) ALDERA
MENDI IRTEERA. BILBOKO
ALPINO MENDIZALE BAZKUNA.

MARTXOAK 22
BBK BERTSOLARI GAZTEEN
LEHIAKETAKO SAIOA.
KAFE ANTZOKIA. 19:00ETAN.

MARTXOAK 25
'TROKAOLATARRAK' ANTZEZ-
LANA. GILKITXARO ANTZERKI
TALDEA. KAFE ANTZOKIA.

**MARTXOAREN 28-
-APIRILAREN 3**
IRTEERA. PUIG CAMPANA
MENDIA (1.410 m) ESKALADA
EGITEKO ETA GERO FINESTRAT
HONDARTZARA (VALENCIA).
BOLUETAKO EGUZKI
LOREA TALDEA.

MARTXOAREN 31
ABERRI EGUNA.

